Gregorio Iriarte

«Gerra Hotzaren peoi moduan bidali ninduten Boliviara»

Herrialde kaotikoa eta gatazkatsua omen da Bolivia, baina Suitzan aspertu egingo litzatekeela dio. 45 urte eman ditu zapaldu eta baztertutakoen aldeko borrokan, lehenengo lerroan.

Ander Izagirre Cochabamba

Komunismoari aurre egitera bidali omen zuten Gregorio Iriarte Boliviara. Han, ordea, Olatzagutiko (Nafarroa) apaiz honek meatzariek jasaten zituzten bidegabekeriak eta masakreak ezagutu eta giza eskubideen aldeko lan sutsuari ekin zion: diktadura militarren gehiegikeriak salatu, narkotrafikoak elikatutako gobernuak botatzen lagundu eta hainbat liburu kritiko argitaratu zituen. Evo Morales karrera politikoa hasten ari zela, txundituta gelditu zen haren lanekin eta aholkulari gisa hartu zuen. Egun, 83 urterekin, Cochabambako gela apalean idazten jarraitzen du, Moralesek bultzaturiko eraldaketa begirada kritikoz aztertzen duen bitartean.

G Argentinan eta Uruguain ibili ondoren, Llallaguara bidali zintuzten 1964an, Boliviako meatze gune nagusira, Pio XII.a irrati katolikoa zuzentzera. Zer aurkitu zenuen han?

E Llallagua borborka zegoen. Irratira lehen aldiz joan nintzenean, eraikinaren bueltan zaindari armatuak topatu nituen, dinamita eta guzti. Istilu handiak zeuden sindikatu komunistaren La Voz del Minero irratiarekin, eta eraso egiten zioten elkarri, tiroz, bonbaz. Gerra Hotza zen puri-purian, mendebaldea ekialdearen kontra, ideologia bat bestearen kontra, irrati bat bestearen kontra; eta ni peoi moduan bidali ninduten.

Llallaguako meatzarien sindikatua Boliviako indartsuena zen. Herrialdea eztainuaren menpe zegoen eta meatze nagusiak Llallaguan zeuden; beraz, hango greba batek Gobernua ito zezakeen. Meatzariek lanuzteak antolatu eta Gobernuak armada bidaltzen zuen. Tentsio handian bizi ginen.

Laster ikusi nuen meatzariak infernuan bizi zirela. Mordoa hiltzen ziren, lur-jausien, gasen, leherketen eraginez, baina batez ere silikosiagatik, birikak errausturta. Lan baldintza ikaragarriak ziren; familiarekin pilatuta bizi ziren enpresak utzitako etxola kaskarretan, ez zuten ia sendagilerik, emakume eta haurrak ilaran jartzen ziren goizeko lauretan, derrigorrean enpresaren dendetan janaria erosteko… Hori guztia bidegabekeria galanta zela konturatu nintzen. Eta agian Pio XII.a irratian oker genbiltzala, beti enpresaren eta Gobernuaren alde.

G Orduan Federico Escobar ezagutu zenuen, Llallaguako buruzagi komunista.

E Kapela kendu eta hauxe esan zidan: «Ez didazu ulertuko, baina ni komunista naiz %100, eta katolikoa %100. Nire borroka injustizia, esplotazio eta pobreziaren aurkakoa da». «Tira, ni ere horretan nabil», erantzun nion. «Bada, esadazu: irratia meatzarien ala enpresaren alde egongo da? Zure eta nire eredua den Jesu Kristo Llallaguara etorriko balitz, zeinen alde egingo luke?». Inpresio handia egin zidan, eta kideei esan nien: «Uste dut oker gabiltzala».

G Sindikalistekin elkarlanean hasi zineten?

E Ez genuen denbora izan, oso garai gogorra etorri zelako. Barrientos jeneralak estatu-kolpea eman zuen 1965ean, eta meatzariei soldata erdira jaitsi zien. Boliviako meatze guztiek greba hasi zuten. Baina, armadaren errepresioagatik, denek amore eman zuten. Llallaguak izan ezik. Militarrek kanpamendua inguratu eta mezu bat helarazi ziguten, irratian zabaltzeko: «Escobarrek ez badu bere burua entregatzen, haren bila sartuko gara». Escobar aholku eske etorri zitzaidan, eta ihes egiteko plana proposatu nion. Biharamunean, argitu aurretik, autoz aterako ginen: gurekin lanean zebilen *gringito* bat gidari; ni neu sotanarekin, soldaduei inpresio pixka bat egiteko; eta Escobar, traje eta gorbatarekin, eta udaletxean prestatutako agiri faltsu batekin.

05:00etan abiatu, eta Escobarrek esan zidan: «Erreza ditzagun hiru *Agur Maria;* bidaia oso arriskutsua da». Eta nik: «Hara, marxistek horixe diote, beldurrak sortzen dituela jainkoak». «Baliteke, baina nik gauero egiten dut otoitz, beldurrik gabe». Otoitz egin eta atera ginen.

Tabako paketea sartu nuen patrikan. Ez naiz erretzailea, baina pentsatu nuen ongi etor zitekeela soldaduei zigarroak eskaini eta tentsioa arintzeko.

Militarren burdin hesiraino heldu ginen, oraindik gauez, eta kapitain bat inguratu zitzaigun: «Aita Gregorio, lagundu egin behar diguzu. Meatzariak armatuta omen dabiltza, nola antolatu diren esan behar didazu, buruak non dauden… Koronelari deituko diot, zuk hari azaltzeko». Ororura nindoala esan nion, meza ematera, eta bueltan den-dena kontatuko niela, ez genuela ordu txiki horietan koronela esnatu behar. «Ongi da. Baina agiriak erakutsi behar dizkidazue». Hiru karnetak eman genizkion. Neurea begiratu zuen lehenik, *gringitoarena* gero… orduantxe harengana joan eta tabako paketea bere begien eta Escobarren agiri faltsuaren artean jarri nuen: «Tori, kapitaina, soldaduei banatzeko». Begiak altxatu, zigarroak hartu, eta banatzen hasi zen. Denak pozik, esker onez. Nik agiria azkar berreskuratu nuen eta hesia altxatu ziguten.

G Noizbait jakin al zuten ihes egiten lagundu zeniola?

E Bai. Egun batean Barrientos presidenteak bere etxera gonbidatu ninduen, La Pazera. Elkarrekin bazkaldu genuen, eta halako batean bota zidan: «Aita Gre-

TXOMIN TXUEKA